ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

JAIETAN ERASO MATXISTEI AURRE EGITEKO ZERBITZUA ESLEITZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

Espedientearen zenbakia: 2024-0113
Kontratu-mota: Zerbitzua
Kontratuaren xedea: Jaietan eraso matxistei aurre egiteko zerbitzua
Kontratatzeko prozedura: ireki sinplifikatua
Espedientea tramitatuko duen arloa: Udal berdintasun saila

1. XEDEA

Herriko jaietan eraso matxistei aurre egiteko zerbitzua kontratatzea. Barne hartuko ditu: jaien aurretik sozializazioa eta lanketa kolektiboa, eraso matxisten arreta zerbitzua eta indarkeria matxistarik gabeko gunea.

Helburu orokorra: indarkeria matxistarik gabeko jaiak ospatzeko arreta, informazioa, prebentziorako eta laguntzarako baliabideak eskaintzea.

Helburu zehatzak:

- Indarkeria matxistaren inguruko sozializazioa areagotzea eta kontzientziatzea.
- Babes eta elkartasun guneak irudikatu eta indarkeriari aurre egiteko bitartekoak erraztuko dituen erreferentzia guneak sortzea.
- Erasoa gertatu ondorengo lehenengo arreta eta eskuhartzea eskaintzea.
- Eraso matxisten aurkako erantzun instituzionalaren koordinazioan laguntzea.
- Emakumeek beren burua defendatzeko duten gaitasunaz jabearazi eta horretarako bitarteko eta lan tresnak eskaintzea.
- Jaietan gertatzen diren eraso matxisten berri izatea, erregistratzea eta ikusgarri egitea.
- Zerbitzuen etengabeko ebaluazioa bultzatzea eta beharrezko hobekuntzak txertatzea.

2. ZERBITZUAREN EZAUGARRIAK ETA KUDEAKETA

Zerbitzuaren organo arduraduna Udaleko Berdintasun Saila da eta Udal arduradun teknikoa, berriz, udal berdintasun teknikaria.

UDAL BERDINTASUN SAILA
☎ 94 683 3670 Faxa: 94 683 3667 rbaltar@ondarroa.eus
Musika Plaza z/g – 48.700 Ondarroa - Bizkaia

Sinatzaile / Firmante: ONDARROAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ONDARROA Data: 2024-03-19 12:51:32(UTC) Fecha: 19/03/2024 12:51:32 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: ROSA MARIA BALTAR CABO Data: 2024-03-19 12:53:30(UTC) Fecha: 19/03/2024 12:53:30 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {7dff4c75-9601-47fc-b9e1-6943465890c7} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

Euskaraz emango da zerbitzu osoa, hasi udalaren eta xede taldearen hartu emanetatik eta amaitu kontratutik eratorritako betebehar guztietan.

Feminismoa, Teoria eta Praktika gisa, zerbitzu hauen oinarria eta iparrorratza izango da, hausnarketa eta kontrasterako iturburua, norabidea eta lehentasunak zehazteko erreferentetzat hartuko da.

Lizitatzaileak zerbitzuaren barruan sartzen diren alderdi guztiak diseinatu, antolatu, sustatu, zuzendu eta gauzatzeko betebeharra hartuko du. Hortaz, enpresa lizitatzaileen proposamenak atal horiek bildu eta kontuan izango ditu zerbitzuaren ezaugarri horiek guztiak. Hortaz, honako alderdiak bermatzeko estrategiak egokituko dituzte enpresa lizitatzaileek; horiek moldatzeko, hobetzeko eta handitzeko aukerarekin:

3.1. AURRE LANKETA FORMAZIOAREN BITARTEZ

Norbanako, elkarte eta eragileen inplikazioa bilatu nahi da. Bide horretan, eraso matxistei aurre egiteko protokoloaren hobekuntzak adostu eta herrira sozializatzeko lan saioak bideratuko dira.

Orain arte landutako *eraso matxistei aurre egiteko jaietarako herri protokoloa* identifikatutako hutsuneak eta hobetzekoak konpartitu eta adostea da helburua. Era berean, herriko eragile eta elkarte desberdinak protokolora atxikitzea lortzeko prozesua landuko da; era horretara, indarkeria matxistaren inguruko kontzientziazioa eta jarrera aktiboa lortzeko helburua bete nahi da.

Honako eragile hauetan jarriko da arreta: txosnaguneak, tabernak, emakume elkarte eta mugimendu feminista, herriko elkarte eta jaietako eragileak. Guzti horiek arreta zerbitzuaren gaineko informazio xehatua dutela bermatu beharko da.

Lizitatzaileak estrategiaren diseinu zehatza aurkeztu beharko du, proposamen hori baloratuko delarik modu berezian (memorian-balorazio irizpideen atalean zehaztua).

3.2. ERASO MATXISTEN ARRETA ZERBITZUA

Eraso matxisten aurrean arreta eta eskuhartzerako puntua, jaietan gertatzen diren eraso matxisten arretarako zerbitzua izango da: informazioa, aholkularitza, akonpainamendua eta erasoak erregistratzeko telefonoa.

UDAL BERDINTASUN SAILA
☎ 94 683 3670 Faxa: 94 683 3667 rbaltar@ondarroa.eus
Musika Plaza z/g – 48.700 Ondarroa - Bizkaia

Sinatzaile / Firmante: ONDARROAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ONDARROA Data: 2024-03-19 12:51:32(UTC) Fecha: 19/03/2024 12:51:32 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: ROSA MARIA BALTAR CABO Data: 2024-03-19 12:53:30(UTC) Fecha: 19/03/2024 12:53:30 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {7dff4c75-9601-47fc-b9e1-6943465890c77} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

Bi ezaugarri nagusi izango ditu zerbitzuak:

- Erasoa jasan duenari arreta zein laguntza eskaintzea: informazio egokia emango zaio jakin dezan zer aukera dituen egoerari aurre egiteko; aholkularitza eta akonpainamendua eskainiko zaio. Aurrez aurreko zerbitzua zein telefonoz.
- Eraso matxistak identifikatu, erregistratu (telefonoz zein Whatsappez) eta ikusgarri egitea: herritarrak indarkeria sexistaz kontzientziatzeko bai eta indarkeria matxistaren beste molde batzuez ere (transfobia, lesbofobia, homofobia, bifobia). Jaien testuinguruan dagoen errealitatea ahalik eta osatuen jaso nahi da.

Hortaz, aurrez aurreko zein telefono bidezko laguntza eta akonpainamendua bideratuko da erasotua izan denari edota deitzen duen edonori. Herritarrek eta jaietako eragileek ere zerbitzura jo ahal izango dute aholkularitza eske.

Zerbitzuak Etxelilan izango du kokapen fisikoa.

Egunero erregistroaren berri emango zaio Udalak izendatutako arduradunari. Horrez gain, zerbitzua bukatu eta 1. lanegunean idatzizko txostena helaraziko da.

Zerbitzua emateko bi langile zehaztuko du enpresa lizitatzaileak.

3.3. INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO GUNEA

Indarkeria matxistaren aurrean jarrera aktiboa adierazteko eta autodefentsa feministaren aholkularitza gunea izango da; indarkeria matxistari aurre egiteko bitartekoak eskura dituen gunea, babes lekua, gune segurua. Bertan, indarkeria matxistari aurre egiteko bitarteko ezberdinen gaineko informazioa eta autodefentsa feministaren filosofiaz jarduteko aholkularitza emango dira.

Gune dinamikoa izango da, jaietan leku eta egun estrategikoetan kokatua, enpresa lizitatzaileak indarkeria matxistaren gaineko sentsibilizazioa egiteko material propioa eskainiko du, baita udalak eskura ematen duen informazio eta materiala ere ikusgai jarriko da. Arreta zerbitzuaren gaineko informazioa emango da, baita herri protokoloaren nondik norakoak zabaldu.

Zerbitzua emateko bi langile zehaztuko du enpresa lizitatzaileak.

UDAL BERDINTASUN SAILA
☎ 94 683 3670 Faxa: 94 683 3667 rbaltar@ondarroa.eus
Musika Plaza z/g – 48.700 Ondarroa - Bizkaia

Sinatzaile / Firmante: ONDARROAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ONDARROA Data: 2024-03-19 12:51:32(UTC) Fecha: 19/03/2024 12:51:32 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: ROSA MARIA BALTAR CABO Data: 2024-03-19 12:53:30(UTC) Fecha: 19/03/2024 12:53:30 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {7dff4c75-9601-47fc-b9e1-6943465890f7} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

3.4. ZERBITZUAREN AURREIKUSPENA

Aurre lanketa	Saioak	Gutxienez, 2 orduko 2 saio. (4ordu)	Ekaina-uztaila 4 ordu
ZAPATO AZULE	Arreta zerbitzua	18:00etatik 08:00etara	Ekainaren azken zapatua
ANDRAMAXETAN	Arreta zerbitzua	20:00etatik 08:00etara	Abuztuaren 13tik 17ra (biak barne)
	Gunea	19:00etatik 22:00etara	Abuztuak 13 eta 16
Aldakorra	Zerbitzu/eskuhartze orduak	10 ordu	Beharraren arabera

Egutegi eta ordutegi horiek ezartzen badira ere, aldaketak egiteko malgutasuna egongo da. Horrela bada, gehigarri moduan, zehaztu dira 10 ordu; horiek erabiliko dira, Udalak horrela eskatuta, zerbitzuen ordutegia/egutegia handitzeko beharra baloratuz gero.

Zerbitzuaren egutegian aldaketa izanez gero, Udalak hilabete aurretik jakinaraziko du.

4. KOORDINAZIOA

Arestian aipatutako alderdi guztien arteko koordinazioa bermatu beharko du enpresa esleipendunak. Horretarako, koordinatzaile bat izendatuko du eta bermatuko du zehaztutako alderdi guztien gaineko etengabeko komunikazioa, koherentzia eta elkarlana udalarekin, zerbitzuak abian dauden bitartean eta kontratuak irauten duen bitartean sor daitezkeen arazoak konpontzeko.

Besteak beste, gutxienez, aurrez aurreko bi lan bilera egin beharra egongo da, batetik, protokoloaren lan prozesua zehazteko, eta bestetik, zerbitzuen koordinazioa bermatzeko.

5. GIZA BALIABIDEAK:

Arreta zerbitzuan zein informazio gunean bina langile beharko dira, formazioetarako, aldiz, gutxienez, langile bat. Zerbitzuaren eginkizunak betetzeko, gutxienez, lau

UDAL BERDINTASUN SAILA
☎ 94 683 3670 Faxa: 94 683 3667 rbaltar@ondarroa.eus
Musika Plaza z/g – 48.700 Ondarroa - Bizkaia

Sinatzaile / Firmante: ONDARROAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ONDARROA Data: 2024-03-19 12:51:32(UTC) Fecha: 19/03/2024 12:51:32 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: ROSA MARIA BALTAR CABO Data: 2024-03-19 12:53:30(UTC) Fecha: 19/03/2024 12:53:30 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {7dff4c75-9601-47fc-b9e1-6943465890d7} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

langile beharko dira. Lantalde osoak Hezkuntza edota gizarte zientzien arloko unibertsitate titulua izango du, 3. HE ala baliokidea eta emakumeen eta gizonen berdintasunean edota indarkeria matxistan, gutxienez, 150 orduko formazioa dutela bermatu beharko du enpresa esleipendunak.

Horrez gain, baloratuko da lan taldearen formazioa zein enpresa lizitatzaileen esperientzia kontratuaren xedearekin lotutako zereginetan (memorian, balorazio irizpideen atalean zehaztua).

6. EGITASMOAREN EBALUAZIOA EGITEA ETA BEHARREZKO TXOSTENAK AURKEZTEA.

Arreta zerbitzuari dagokionez (3.1 atalean), egunero, erregistroaren berri emango zaio udalak izendatutako arduradunari eta 1. lanegunean idatzizko txostena helaraziko da.

Horrez gain, hemen aurreikusi diren zerbitzu eta eginkizun guztiei buruzko memoria osotua aurkeztuko da, besteak beste, honako hauek jasoko dira: datuak, erabiltzaileen profilak, egindako jarduerak, hobekuntzak, behar konkretuak identifikatzea eta abar.

7. BALIABIDE MATERIALAK

Udalak Arreta zerbitzuko langileentzako leku aproposa prestatuko du Etxelilan, arreta bideratzeko telefonoa eta Interneteko konexioa dituela. Zerbitzuen dibulgazio eraginkorra egitea Udalaren ardura izango da.
Enpresa esleipendunak Indarkeria matxistaren informazio gunerako karpa eta material propioaren ardura izango du. Udalak gunearen kokapena zehaztuko du eta argindarra jarri.

Testu honen jatorrizkoa euskaraz idatzia da; beraz, euskarazko eta gaztelaniazko bertsioen artean interpretazio-auzirik sortuz gero, hori hartuko da aintzat.

UDAL BERDINTASUN SAILA
☎ 94 683 3670 Faxa: 94 683 3667 rbaltar@ondarroa.eus
Musika Plaza z/g – 48.700 Ondarroa - Bizkaia

Sinatzaile / Firmante: ONDARROAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ONDARROA Data: 2024-03-19 12:51:32(UTC) Fecha: 19/03/2024 12:51:32 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: ROSA MARIA BALTAR CABO Data: 2024-03-19 12:53:30(UTC) Fecha: 19/03/2024 12:53:30 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {7dff4c75-9601-47fc-b9e1-6943465890f7} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.